# EDITORIAL

## *MAPEI ETA MENDIEI BURUZ*

*Apurka-apurka, eta kosta aldetik hasita, 1:25.000ko eskaladun mapak argitaratzen hasi dira. Zorionean gaude, erabiltzen den katastroko mapak 1952-54 urtetakoak bait dira, arrezkero gaurkotuta egon gabe. Beraz, gure 1:50.000ko eskala-kartografia zaharra berriztatzen hasi beharko da, mapa berriak, argiak, ondo aurkeztuak eta toponimia lehen baino hobea duten hauek eskuratuz.*

*Baina, hau bai gauza ezustekoa! Oraingo mapetan agertzen diren gailurren altuerak ea inoiz ere ez datoz bat katastroko mapa zaharretan agertzen zirenekin. Ez-adostasun hau han-hor-hemenka agertzen da, hots, Ernio eta Izarraitzko mapetan (Aranzadik eratuta), kasu batzuetan alde nabarmenak direlarik.*

*Urduri eta aho bete aginez aurkitzen da norbera. Katastroko mapak sinisgaiak ziren eta hara non agertzen diren denak txarto kalkulatuta. Sinismena galtzeko arrisku garbia dago. Eta baserritarrarena hemen ere: bere erlijio-eskema osoa hankaz gora joaten zaio San Pedroak kendu dizkiotenean zeren beretzat San Pedro beti izan da santurik handiena —horrexegatik daramatza giltzak bere eskuan— eta orain inongo aginterik ez duela entzun behar.*

*Gai horretan adituen aldetiko azalpenen bat eskertzekoa litzateke, ba, mendizale asko bait dago altuerei, desnibelei eta abarrei buruzko datuekin gozatu egiten dutenak (Kartajanariren maniak bakarrik ez dira), eta hauei zeini jaramon egitea gustatuko litzaieke. Beraz, hau kontuan hartzekoa izango da Ehun Mendiri buruzko Katalogoa berregiterakoan. Hau ere beste sinisgai bat da mendizale askorentzat: itxura denez, katalogo horretan agertzen direnak bakarrik dira existitzen duten mendi bakarrak, enparauak bigarren mailakoak edo diren bitartean.*

*Katalogoak prestigio handia du eta edukitzen jarraitu behar du eta edukitzen jarraitu behar du. Erreferentzi-puntu dudagabea izaten jarraitu behar du. Horregatik, ba, hurrengo argitarapena helburu handiekin egiteak merezi du. Baina ez daitezela altuerak bakarrik behin-betikoak izan, beste gauza batzuk ere bai. Iparraldeko gailurrak —ez Nofarroako mapari erantsitako 6ak bakarrik— sar daitezela. Nafarroako Hegoaldea ere sar dadila, zeren 42º 30' paralelotik beheragoko aldean ere bait dago zenbait gailur interesgarri.*

## DE MAPAS Y MONTES

Poco a poco, y empezando por la costa, se están editando mapas de escala 1:25.000. Estamos de enhorabuena porque los mapas del catastro al uso datan casi en su totalidad de los años 1952 a 1954 y están sin actualizar desde entonces. Así que podemos ir renovando nuestra vieja cartografía de escala 1:50.000, con hojas nuevas, claras, bien presentadas y con la toponimia un poco menos maltratada que antes.

Pero, sorpresa al estudiar el primero de ellos, que se confirma al ir viendo los demás: la altura de las cumbres no coincide prácticamente en ningún caso con la que figura en los viejos mapas del catastro. El desacuerdo aparece en uno y otro mapa y se repite, por ejemplo, en los mapas de Ernio e Izarraitz preparados por Aranzadi, señalando en algunos casos unas diferencias notables.

Uno se siente inquieto, desconcertado. Los mapas del catastro eran como un artículo de fe y ahora parece que estaban todos mal calculados. Hay un evidente peligro de pérdida de fe, como le ocurre al casero, al que se tambalea todo el esquema religioso cuando quitan la obligatoriedad de la fiesta de San Pedro. Que estaba claro que era el santo más importante —que para eso tenía las llaves— y ahora resulta que no manda nada.

Se agradecería una aclaración por parte de los expertos en el tema. Porque hay mucho montañero que disfruta con los datos de las alturas, desniveles, etc. (no son sólo manías del Kartajanari) y le gustaría saber a qué atenerse. Y habrá que tenerlo en cuenta al rehacer el Catálogo de Cien Montes. Que también es otro dogma de fe para muchos montañeros, hasta el punto que parece que los del Catálogo son los únicos montes que existen, o que los demás son como de segunda división.

El catálogo tiene un prestigio reconocido y debe mantenerlo. Debe seguir siendo el indudable punto de referencia. Así pues, vale la pena que la siguiente reedición se haga bién otra serie de arreglos pendientes. Sobre todo, que se incluyan las cumbres de Iparralde (no sólo 6 anejas al mapa de Nafarroa). Y que se incluya asimismo el Sur de Nafarroa, porque también hay alguna cima interesante más abajo del paralelo 42º 30'.